

iritzia

gaurko...

...elkarrizketa



Patxi Arrasate

• FARMAZIALARI EUSKALDUNEN
ELKARTEKO LEHENDAKARIA •

«Farmazialarien irabaziak murriztuko dira»

Espainiako Gobernuak medikamentuen prezioak jaitea erabaki du. Horren aurka, bi orduko geldialdia egingo dute asteartean Estatuko farmazialariek.

■ Osasun arloan eraginik izango du neurriak?

Osasun arloan ez du eraginik, osasun ondorioz ez du izango. Neurri ekonomiko hutsak eta hutsalak besterik ez da. Era horretan, farmazialarien etekinak murriztu egiten dira.

■ Osasun alorrean eraginik ez, baina farmazialariengan bai, beraz?

Hori da. Farmazialarien irabaziak nabarmen murriztuko dira, %7 edo. Botika batzuen deskontua handia izango da dekretuaren eraginez. Bestalde, medikamentuen prezioa Madril-ek erabakitzen zuen eta erabakitzen du, eta hor dago gakoetako bat. Osakidetza eta Jaurilaritzak ez dute parte hartzen prezioen erabakitzen horretan.

■ Jaurilaritzak eskuduntzarik ez duelako.

Hain zuzen ere. Jaurilaritzak ez dauka zereginik. Estatu mailan prezio bakarra eta erregistro bakarra behar dela diote.

■ Ze eragin izango du astearteko geldialdiak?

Farmazialariak neurri horrekin ados ez daudela erakutsiko du. Neurria, gainera, farmazialariekin kontatu gabe hartu du Espainiak. Geldialdia, ez dago egunerokoari kalte egiteko pentsatua, presioa egiteko baizik.

Iban Arregi
DONOSTIA

...esaera

«Denbora badoa eta gu harekin»

...hizpideak

Txikia, baina pausoa

■ Zuhurtziaz hartu dute euskalgintzako erakundeek Frantziako Gobernuak egin berri dizkien proposamenak. Egiatzko hizkuntz politika abiatzeko bitartekoak jartzetik zinez urruti dago Estatu, baina orain arte inoiz sumatu ez zitzaion jarraera erakutsi du. Batetik, euskalgintzako hainbat alorretarako diru laguntzak proposatu ditu; diru kopuru aski mugatuak dira, berehalako beharrei ihardesteko baino ez, baina sekula iturri horretatik sosik jaso ez dutenentzat aitzinpausoa dela ezin ukatuko da. Elkartek

ek egindako lanaren eza-gupena eta hizkuntz politika antolatzekeo behararren aitortza ere berriak dira Estatuaren ordezkarien ahotan.

Aitzinpausoa, beraz, baina hastapen gisa ulertzen baldin bada. Oraindik hizkuntz politika antolatzekeo modurik ez baita, eta euskararen ofizialtasunerako biderik ere ez baita ireki.

Adi egon beharko da, gainera, agindutako urria beteko ote den. Oronosek ohartarazi bezala, «behin baino gehiagotan trufatu izan baitira» euskalgintzaz.

De la Calle konfinatua

■ Frantziako auzitegi baten lehen aldiz behartu du Gobernuak euskal herritar baten kanporatzea etetera. Hortaz, Alberto Lopez de la Calle Espainiaratu ordezkari konfinatu egin du Paristik gertu. Erabaki horrekin, ageriago gelditu da Parisek politika horretan duen sostengu falta, giza eskubideen aldeko taldeena ez ezik auzitegiarena ere. Azken erabakia, dena den, hartzeko dauka Versaillesko auzitegiak, eta presio faltarik ez da izango, Espainia-Frantzia egungo loturak ikusita.

Somarribaren lorpena

■ Joane Somarriba ziklistak bizkaitarrak atzoko etapa zailean ondo eutsi zion liderraren elastikoari eta eskura dauka Italiako Giroa. Lorpen handia da era horretako itzuli bat irabaztea —Frantziako Tourraren atzetik garrantzitsuena baita—, eta are lorpen handiagoa, Somarriba bezala, bigarren segidan irabaztea. Oraindik ez du lortu, baina bizkaitarrak klasea du sobra, eta konfiantza eduki behar da harengan.

Montenegro, haserre

■ Montenegroko Gobernuak gogor kritikatu du Jugoslaviako Errepublikako Federaleko presidentea Slobodan Milosevicek ostegunean Legebiltzarrean proposatu eta onartutako erreforma. Milosevicek ezarritako aldaketek berebiziko murrizketa egingo diote Montenegroren ordezkaritza mailari. Errepublika honek Jugoslaviako Errepublika Federala osatzen du Serbiarekin, baina bertako agintariak Belgradeko erregimene-

tik urrundu egin dira azkenaldi honetan Milo Djukanovic presidentearen ekimenez. Tirabirak lehenagotik bazetozen ere, Kosovoko gerran areagotu egin ziren. Podgorikak ez zion orduan Belgradi lagundu, eta geroztik okerrera egin dute bi errepubliken arteko harremanek. Montenegroko agintariak adierazi dutenez, Belgraden azken erabakia euren herrialdea lotzeko beste trikimailu bat besterik ez da.

...pertsonaiak



JAIME MAYOR OREJA •

Espainiako Atzerriarren Legea aldatzen duen proiektua onartu du Ministroen Kontseiluak. Barne ministroak etorkinen eskubideak murrizten dituen araudiaren berri eman zuen.



PATXI EUGI •

22-17 irabazi zuen Agoizko pilotariak Nafarroako Lau t'erdiko Txapelketako finala. Partida kaskarrean, mendean hartu zuen Jorge Nagore. Eugik 13-0ko partziala egin zion Nagoreri.



JORGE OTEIZA •

Artista oriotarrak hainbat esparrutan jorratutako esperientzia lanen erakusketa batekin inauguratuko da Donostiako Kursaleko Kutxaren erakusketa aretoa. Udazkenean zabalduko da ofizialki.

...datua

24 traineru lehiatuko dira gaur Pasaian, Euskal Ligarako txartela lortu nahian. Hamaika traineruk izango dute Euskal Ligan parte hartzeko aukera.

...adierazpena

«Mundu honetan zerbait unibertetsala bada, hori txirotasuna da»

•
Jon Sobrino

Euskal herritar unibertetsal izendatu berria

... seiko urrea

• XABIER MENDIGUREN ELIZEGI •

Nitarren alde

Iñaki Seguirolaren gorazarrez



gari edo zernahitarako, hain zuzen ere Prycak egiteko asmoa duen dendagune hiper-zabalak jango dien lurra.

Ez da Pryca bakarrik: aireportua ere bada, eta Arakako kuartela, orain bermoldatu eta parke tematiko bihurtuko omen dena, eta AHT proiektua, eta Eibar-Gasteiz autobidea, Gasteizen iparraldeko landa-lur guztia txikituta utziko dutenak. Hegoaldea eta ekialdea txukun antxean

gorde dira orain arte, baina udalaren hirigintza plan berriak etxeko josiko ditu, besteak beste, Aretxabaleta, Gardelegi, Elorriaga inguruak. Eta, dena birbiltzeko, mendealdean ere bada beste aisijolastxintxidegi asmo bat, patatasailak hustu eta bazter guztiak eraikinez eta errepidez betetzeko.

PPri egotziko diogu errua (bera baita agintari udaletxean, diputazioan eta Espai-

niako gobernuan), edo kapitalismoari bestela, baina ez da Gasteizko kontu hutsa, eta denok gara kulpante: gero eta gehiago produzitu-irabazi-kontsumitu lasterketan sarturik gabiltza, gero eta auto gehiago eta hobeak nahi ditugu, gero eta autobide azkarragoetan gero eta urrunago aldegitako hiri gero eta erraldoiagotatik, eta, patxada maite dugunez, etxetxo koxkor bat amesten dugu mendi aldean-edo, geratzen zaizkigun paraje basati apurrrak gutzit izorratzeko.

Ez eskatu niri konponbiderik, ez daukat eta. Bitartean, ordea, nitarren alde paratuko naiz: Mendigurengoeekin orain, eta lurrarekin beti. Lur zikin xaxtar apal eta aluarekin.